

# Siglak:

nola idatzi, nola irakurri  
eta  
nola jokatu





## Siglak nola idatzi

Siglak letra arruntez idazten dira,  
baita letra etzanez idazten diren izenei  
dagozkienak ere.

- Argitaratu berri da EGLU-VII (*Euskal Gramatika Lehen Urratsak-VII*).
- Argitaratu berri da **EGLU-VII** (...).



## Siglak nola idatzi

Siglak, oro har, letra larriz idazten dira, siglari dagokion izena berezia izan zein arrunta izan.

- EAE: Euskal Autonomia Erkidegoa
- BEZ: balio erantsiaren zerga

Baina letra xehez idazten dira baldin lexikalizatuak badaude; hots, izen bihurtu badira.

- laser
- radar
- quasar
- hies
- talgo
- bit
- ...



## Siglak nola idatzi

Europar Batasunaren argitalpen ofizialetan indarrean dagoen hitzarmenaren arabera, sei letra edo gehiagoko sigletan (eta akronimoetan), lehen letra baino ez da idatzi behar letra larriz, baldin eta sigla hitz gisa irakur badaiteke.

- **Unesco** (United Nations Educational, Scientific and Cultural Organisation)
- **Esprit** (European strategic programme for research and development in information technology)
- **Edifact** (Electronic data interchange for administration, commerce and transport)
- **Cenelec** (Comité européen de normalisation électrotechnique)



## Siglak nola idatzi

Baina sigla (edo akronimoa) sei letra edo gehiagokoa bada eta izen gisa ezin irakur badaiteke, letra larriz idazten da oso-osorik:

- **CCAMLR** (Commission for the Conservation of Antarctic Marine Living Resources)
- **EMCDDA** (European Monitoring Centre for Drugs and Drug Addiction)



# Siglak nola irakurri

Sigla, formaren arabera, silabaka (hitza balitz bezala), letraka edo zati bat letraka eta beste zati bat silabaka irakur daiteke.

## Silabaka:

- **EGLU** (e-glu)
- **EGA** (e-ga)

## Letraka:

- **PDF** (pe-de-efe)
- **PPT** (pe-pe-te)

## Zati bat letraka eta zati bat silabaka

- **PSOE** (pe-soe)
- **JPGE** (jota-pe-ge)



## Siglak nola jokatu

Sigla bat jokatzeko, ez da kontuan hartu behar sigla hori nola idazten den, baizik eta nola irakurtzen den: alegia, irakurketan bokalez ala kontsonantez bukatzen den:

- EUDE**l**etik: e-u-del-etik
- EA**J**tik: e-a-jota-tik



# Siglak nola jokatu

Siglak, oro har, izen bereziak bezala jokatzen dira; leku-izen bereziak bezala, hain zuzen.

- UEFA (Europako Futbol Elkarteen Batasuna)
  - UEFAk zazpi hilabeteko zigorra ezarri dio jokalariai.
- SPD (Alemaniako Alderdi Sozialdemokrata)
  - Oso nabarmena da SPDren gainbehera.
- EUTG (Gipuzkoako Unibertsitate eta Teknika Ikasketak)
  - EUTGn hasi nituen ikasketak, baina UPV/EHUn bukatu.
- FEVE (Espainiako Trenbideen Enpresa Publikoa)
  - FEVEko trena hartu behar da Balmasedara joateko.
- AENOR (Espainiako Normalizazio Erakundea)
  - AENORetik txosten bat bidali digute.
  - \*AENORretik...



## Siglak nola jokatu

Salbuespena: izen arruntei dagozkien siglak hitz arruntak bezala jokutzen dira, determinatzaile eta guzti, alegia:

BEZ (Balio Erantsiaren gaineko Zerga)

- **BEZa** ordaindu behar izan dugu.

CD (Compact Disc)

- **CDa** apurtu zait.

PC (Personal Computer)

- **Bulegoko PCak** konpontzera eraman dituzte.

Oharra: sigla lexikalizatuak izentzat jotzen dira, eta horien antzera jokutzen dira: *radarra, laserra, quasar bat...*



## Siglak nola jokatu

Izen arruntei dagozkien siglak, behar denean, pluralean jokatzeko dira:

GKE (gobernuz kanpoko erakundea)

- Mundu osotik iritsitako GKE-**etako** ordezkariak elkartu dira Glasgown.

SA (sozietate anonimoa)

- SA**ek** bi organo nagusi dituzte: akziodunen batzar nagusia eta administratzaileak

ETE (enpresa txiki eta ertaina)

- Euskadiko Kutxa da ETE-**ei** mailegu gehien eman dien entitatea.

[Oharra: ikus ezazu **Siglak eta marratxoa** fitxa (2012-02-17)].